

ZESUMA

ELGETA GOGOAN: Inperuko Poza jardunaldietan Iker Goenagari entzundakoak:



• ELGETAREN EKARRIAZ

- Elgetak trikitiaren bidea zabaldu zuen. Soinu txikiaren **funtzio sozialean** egindako ekarria handia izan zen. Era berean, **errepertorio berria** sortzen lan handia egin zuen.

- Haren lehen **pieza** entzunda ohar gaitezke egindako ekarri amaigabeaz. Han baziren sekulako tonu-aldaketak, parte instrumental desberdinak, bost edo sei koplak desberdin..

• EUSKAL GIZARTEAN ERABAT TXERTATUTA

- Familia kanpotarra izanagatik, berak euskara ikasi zuen, eta ez hori bakarrik, euskal kulturaren barruan, trikitiaren ekarri handia egin zuen.

• KONTRASTE BIZIAN

- Gerra aurretik herri txiki kontserbadoreetan mugitu zen batez ere Elgeta. Elizak indar handia zuen toki horietan. Gizarte kontserbadore horretan jotzen aritu zen. Baina trikitalari hau sozialista zen, balore ezkertiarrek defendatzen zituen eta fedegabea zen. Herri txikietan lanerako soilik mugitu zen.

- Pertsonaia atipikoa zen. Ezagutzen ditugun trikitalari zaharren estereotipo guztiak apurtu zituen. Baserritar munduko baloreekin kontrajarrita dagoen ildoan aritu zen.

KALEJIRAN

- **Korrontzi talde bizkaitarra** Euskal Herriatik aparte ibili da uda partean, eta tartean hainbat lehiaketatan parte hartu du, maila ona erakutsiz. Asturiasko Navelgas Tineo herrian, esaterako, Cuarto de los Valles izeneko **folk talde berrien lehiaketa irabazi** zuen. Horren aurretik, Korrontzi taldea laugarren sailkatu zen Ortigueirako (Galizia) jaialdian, eta bigarren, berriz, Malagako Eurofolk jaialdian.

- Beste batzuen artean, **Iker Goenaga** trikitalaria ere kanpoan izan da uda partean. **Estonian** izan da, hango Folk Musika Jaialdiaren XIV. edizioan parte hartzeko. Mundu osoko akordeoi mota desberdinak bildu dituzte, eta Euskal Herriko ordezkari Iker Goenaga izan da.

GALBAHEA

• **Agurtzane eta Ion Elustondo trikitalariak:** "Trikitalariek zera pentsatzen zuten: *gaurko ogia, biharko gosea*. Inori soinua irakatsiz gero, konpetentzia sortuko zutela, alegia. Hortaz, berriak pirata moduan ibiltzen ziren. Irakaslea nora, haiek, grabagailua hartuta, hara, soinua lapurtzera. Partiturarik ez da izan orain arte. Belarri eta errepikatuz ikasten zen soinua". (El Diario Vasco, 2006/08/11)

• **Kepa Junkera musikaria:** "(Mezenasgoa) beharrezkoa dela uste dut. Jende asko dago laguntzeko irrikan eta hori aprobetxatu behar da. Uste dut ez dela egiten aurreiritzi asko ditugulako, baina musikaren industriaren egoera zein den ikusita, disko gutxi saltzen direla, alegia, kanpotik datorren edozein laguntza baliatu behar da. Azken batean hori guztia ere musika da. Musika egitea disko bat atera ahal izateko lan talde handia zuzentzea ere bada". (Berria, 2006/06/29)

• **Koldo Izagirre idazlea:** "Fragmentatua dago orain trikitiaren, ahul ikusten dut, ez baitago aski fragmentatua ere, alegia asko dago, baina dagoena ez da anitza. Beharbada gero eta galtzenago joango da jarrailego finkoa, entzulego hori. Interesgarria izan liteke entzulego hori galtzea, beste bat hartzeko gai baldin bada. Balio sozial berri bat har dezake, eta errealitatearen eta ametsaren arteko imaginario batean garatu liteke". (Berria, 2006/09/07)

Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen Boletina

ALTZA PORRU!

2006ko iraila / 22.zenbakia

EHTE Allemendi 1, 20800 ZARAUTZ · Tel.: 943 83 28 28
www.trikitixa.net / www.trikimailua.com



Euskal Herriko
Trikitixa Elkarte
L.G.: SS-418/01

NAZIOARTEKO TRIKITIXA JAIALDIARI BEGIRA

Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen eskutik, aurten Nazioarteko Trikitixa Jaialdiaren **bosgarren edizioa** izango da, eta dagoeneko trikitixaren beraren egun handi bilakatu da trikitixazaleen artean. Jaialdia **azaroaren 11n** izango da, **Kursaalen**. Urtez urte gai baten bueltan antolatzen da jai hau. Aurtengoari dagokionez, **kopla** izango du ardatz nagusi. Hain zuzen ere, trikitixa eta kopla beti joan dira eskutik helduta. Gai honen baitan, **kopla** bera eta kantaerak jarri nahi dira begi bistan.

Nazioarteko Trikitixa Jaialdia izaki, bertako partaideak ez ezik, kanpokoak ere izango dira protagonista. Hain zuzen ere, **Portugal, Alemania eta Errumaniatik** etorriko zaizkigu bisitan. **Portugalgo** ordezkari **Chaozinha ahizpak** izango dira. Lau ahizpa hauek Gondarem-eko errepertorio tradizionala lantzen dute. **Errumaniatik, Julian Cobzaru eta Ion Cobzaruk** egingo digute bisita. Soinu-jotzaile hauek beren tradizioa ezagutaraziko digute. **Alemaniatik, berriz, Cathrin Alisch-ek** egingo digu bisita. Konposatu, biolina jo eta kantatu ere egiten du, musikologian, semiotikan eta mitologian aditua den neska honek. **Alaitz Telletxea soinu-jotzailearekin batera** arituko da jaialdian. Egia esan, lehendik ere jo izan dute elkarrekin; Berlinen azkenekoz.

Euskal Herria ordezkatzuz, berriz, honako hauek izango dira: batetik, **Mertxe Oliden, Tomas Soraluze Epelde eta Eugenio Gisasola Lutxurdio**. Epelde trikitixarekin, Lutxurdio panderoarekin, eta Mertxe Oliden kopla kantari arituko dira. Bestetik, **Mentxu Alkorta, Joakin Sodupe Egurrola eta Gema Sistiaga**. Egurrola soinuarekin, eta Mentxu Alkorta eta Gema Sistiaga kantuan izango dira. Hirugarrenik, **Xabier Amuriza eta Mixel Ducau**. Bikote honek Bizkaiko kopla zaharrak ekarriko dizkigu. Amurizak Ducauren gitarraren erritmoan kantatuko du. Azkenik, **Gose taldea** entzun ahal izango dugu. Arrasateko hirukote honek trikitixa eta elektronika uztartu ditu.

Era batera edo bestera, kanpoko zein bertako, kopla zein trikitixaren alorrean dabilen jendea izango da datorren **azaroaren 11ko jaialdian**. Beti dago zer ikasia eta non gozatua. Animatu, beraz, Nazioarteko Trikitixa Jaialdian, eta gogoan hartu San Martin Egunean duzuen zita. Oro har,

trikitixa, kopla, tradizioa eta jai giroa uztartuko ditu kanpokoak hona eta hemengoak kanpora zabaltzeko ahaleginean antolatu den ekimen honek.

Azaroaren 10ean, berriz, **Getxon** egingo da Trikitixa Jaialdia. Emanaldia **Getxo Antzokian** izango da, 20:00etan. Partaideak Portugalgoak, Alemaniakoak eta Errumaniakoak izango dira, Xabier Amuriza eta Mixel Ducaurekin batera.



Portugalgo Chaozinha ahizpak.



Mixel Ducau eta Xabier Amuriza, koplak abesten.

URRESTILLAKO TRIKITIXA, AUNTXA ETA ITURBIDETARRAK

Soinuaren Liburutegia sailak 7. alea dauka: **Urrestillako Trikitixa, Auntxa eta Iturbidetarrak** izenekoa. Urrestillako trikitixaz ari garenean, Auntxa eta Iturbidetarrak datozkigu gogora lehen kolpean, eta, hain zuzen ere, hauek ekarri nahi izan dira gogora oraingo honetan. Pixkanaka-pixkanaka, beraz, trikitixa ardatz duen sail hau osatzen ari da.

Joxemari Iriondo arduratu da liburu **idazteaz**. Egileak Auntxa trikitilaria bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuen, eta zein hobeagorik, beraz, lan hau egiteko. Trikitilariaren ibilerak eta garai hartako trikitixa ezagutzeko aukera polita ematen digu Iriondok, hainbat pasadizo tartekatuz. Liburuaren lehen zatian, Auntxaren pasadizoak kontatzen dira, eta azken zatian, berriz, Iturbidetarren berri ematen da. Betiko moduan, hainbat grabazio ere gehitu zaizkio liburu honi.

Irailaren 28an, Donostiako **Koldo Mitxelena** prentsurrekoa eman zen. Lanaren **aurkezpen-ekitaldia**, berriz, **Urrestillan** bertan egin zen, **irailaren azken larunbatean, 30ean**. Aurkezpen-ekitaldia baino lehen, **11:30ean**, Irungo Auntxa Trikitixa Eskolakoek, Azpeitiko Musika Eskolakoek eta trikitilari zahar zein gazteek kalejira egingo dute. Segidan, **12:00etan**, liburu-diskoaren aurkezpena etorriko da. **Arratsaldean, Azpeitian** jarraituko du festak. **Arratsaldeko bostetatik aurrera**, trikitixa entzun ahal izango da Azpeitiko kaleetan. Bertan izango dira: Irungo Auntxa Trikitixa Eskola, Eibarko Musika Eskola, Elgoibarko Musika Eskola, Soroluzeko Musika Eskola, Zarauzko Imuntzo Trikitixa Eskola eta Azpeitiko Musika Eskola. Kaleetan barna ibili ondotik, **Trikitixa Jaialdia** izango da **19:00etan**.



Liburuaren azala

HERRI MUSIKA JARDUNALDIAK, PANDEROAREN ERRITMORA

Bosgarren aldiz **Herri Musika jardunaldiak** izango dira Oartzunen, **azaroaren 25 eta 26an**. Herri Musikaren Txokoak Euskal Herriko Trikitixa Elkarte, Pontevedrako Musika Tradizionalaren Kontserbatorioa eta Floque de Lalin izan ditu laguntzaile antolaketa-lanetan. Jardunaldi hauek **panderoa edo pandereta** izango dute **ardatz**. Hain juxtu, herri musikan presentzia handia duen instrumentua. Hala, jardunaldi hauen baitan, egitarau zabala osatu da. **Galiziako, Euskal Herriko eta Gaztela-Leongo adituek** egindako lanak eta ikerketak ezagutu ahal izango dira, eta horien bueltan, mahai-inguru, entzunaldi eta tailerrak prestatuko dira.

Batetik, **larunbat** goizean, **10:00etan, hitzaldiak** izango dira. Hizlari, Xabier Leturia eta Imanol Urkizu, Jose Luis do Pico galiziarra eta Gabriel Gonzalez leondarra izango dira. Bazkalondan, **15:30ean**, Oartzungo Ergoien auzoko Auzokalte Auzo Elkarte, **mahai-inguru** izango da, eta panderoaren inguruan gogoeta egiteko aukera emango du. Bertan, Iñaki Eguren moderatzaile, eta parte-hartzaile, Jose

Luis do Pico, Gabriel Gonzalez eta Imanol Urkizu izango dira. Iluntze aldera, **19:00etan, pandero-jotzaileen jaialdia** izango da Oartzungo Udaleko areto nagusian, eta hortxe izango da aukera hainbat joera, modu eta eredu ikusteko. Euskal Herriatik, Imanol, Leturia eta Mutriku, eta Roberto Etxeberria eta Kepa Arrizabalaga arituko dira; galiziarren kasuan, pandereiteiak entzuteko aukera izango da, eta Leongo pandero eta pandereta-joeren berri Gabriel Gonzalez Villalbak ekarriko digu.

Iganderako ere badago hainbat aukera. **Goiz parterako**, pandereta zein pandero-**tailerrak** prestatu dira. **10:00etatik aurrera**, Urko Arozena, Davide Salvado galiziarra eta Gabriel Gonzalez Leondarra arituko dira irakasle-lanetan. Igande arratsaldean, **17:00etan, erromeria** izango da Oartzungo Doneztebe plazan. Hauek, parte-hartzaileak: Oartzungo bertsolari eta trikitilariak, Imanol, Leturia eta Mutriku, Galiziako pandereiteiras direlakoak, Leongo Gabriel Gonzalez eta Zumarragako Trikitixa.

INPERNUKO POZA TRIKITIXAREN IV. JARDUNALDIAK: Leku aldaketarekin pozik

Inpernuko Poza Trikitixaren IV. Jardunaldiak irailaren 5, 6 eta 7an izan dira, eta Elgeta izan da ekimen honetako ardatz. Aurten **Koldo Mitxelena**tik **Donostiako Udal Liburutegiko sotora** egin du salto. Lehen bi egunetan areto hau bete egin zen. Azken egunean, berriz, **udaletxeko aretoa** ere bete egin zen trikitixazalek.

Emanaldie dagokienez, beren kalitatea da nabarmentzekoa. Laja eta Landakandak Elgetaren errepertorioko piezak bikain jo zituzten. Hitzaldiak ere ez dira huts egiteko modukoak izan, eta hausnarketarako bideak irekita utzi dituzte, gainera.

Jardunaldi hauetan trikitixazaleak zein ustekabean gerturatutakoak bildu dira, eta denek ere gustura entzun zituzten bertan entzundakoak. Azken egunean, Laja eta Landakandaren erritmoari jarraituz, jendea dantzara ere animatu zen. Lajak berak Elgetaren hainbat kontu ere kontatu zituen. Izan ere, Elgetaren berri emateko zein hobegorik, etxean izan baitzuen maisu handia.



Laja eta Landakanda, Patxi Santamaria eta Inazio Tolosa, jardunaldietako azken eguneko Elgeta 100 urte ikuskizunean.

BERSKO BERRIAK

KEPA JUNKERA: HIRI

Irailaren 4an kaleratu zen Kepa Junkeraren azken lana, **Hiri** izenekoa. **Elkar** diskoetxera jo du berriz ere. Hiri diskoa **16 kantuk**

osatzen dute, eta **munduko hiriei eta lekuei dedikatutako** lana dugu. Musikari bilbotarrak Kirunara eramango du entzulea, Laponiako hiriko izotz museora zaharki. Entzuleak Marokoko Agadir herrirako ezagutuko du, eta Finlandiako Kookola hiria, eta Georgiako Tbilisi, eta AEBetako Reno, eta Frantziako Tatihou, eta Japoniako Nagoya... Euskal Herrira iritsiko da ondoren, Iurreta (Bizkaia), Ataun (Gipuzkoa) eta Junkera hazten ikusi zuen auzora, Errekalderra.

Lan hau egiteko **herri askotako hainbat musikari** izan ditu **bidaide** Junkerak: besteren artean, Gilles Chabenat (vielle tresna jo du), Alain Bonnin (pianoa), Jean Wellers (kontrabaxua), Bulgarka ahots taldea, Andy Narell (steel bateria), Bottari & Enzo Avitabile (perkusiokoak), Aygun (panderoa), Etxak txalapartari taldea, Ibon Koteron (alboka), Xose Manuel Budiño (gaita), Eliseo Parra eta Mercedes Peon kantariak.

Diskoak **kontraste handiak** ditu. Bertako soinuek indarra dute, baina oso nahasirik ageri dira munduko beste soinu batzuekin. Ondorengo urte eta erdian han-hemen jotzeko asmoa du musikari bilbotarrak. Euskal Herriko hainbat txokotara ez ezik, AEBetara, Argentinara, Txilera, Uruguaira eta Europako hainbat herritara eramango ditu Hiri-ko kantuek.




JOSEBA TAPIA: REAL POLITIK

Joseba Tapiaren azken lana **urriaren hasieran** aurkeztuko da. Real Politik diskoa **14 kantuz** dago osatuta. Bere bakarkako laugarren

lan hau **Zakurraren biolina** izeneko **zigilu berriarekin** argitaratuko du. Joseba Tapiak ibilbide luzea egin du honezkerok: Tapia eta Leturia laukotearekin, erromerietan, bakarkako kontzertuetan eta Hiru Truku taldearekin.

Disko honetan kantatzeko gogoia du, esateko. Real politik, politik eta errealik; gure gizarte honi **kritika umoretsua** egiten dio. Kantutegi berri honetan, beraz, tradizio zaharra eta gure inguruko molde desberdinak jorratu ditu. Berak sortutako piezak zorrotzak, ironikoak eta alaiak dira, funtsean. Doinu aldetik denetik dugu, doinu zahar eta berri, bertako zein kanpoko, nonbaitetik jasoak zein sortuak... **Hitzen aldetik** ere lan handia egin da; bertso zahar eta letra berriak, betiere zerbait esatera, zerbait adieraztera datozenak. Batetik, iraganera begiratu eta Gabriel Arestiren hitzak, Joxe Mari Lopetegi bertsolariarenak, Bertol Brecht-enak eta Kurt Weillen-enak berreskuratu ditu, besteren artean. Bestetik, Koldo Izagirrearen azken liburuak hitzak ere erabili ditu.

Gainerakoan, Arkaitz Miner (biolina eta mandolina) eta Jexux Aranburu (teklatua) izan ditu ondoan. Natxo de Feliperen ahotsa ere entzungo dugu Arestiren Biba Berangon. Beraz, **askotariko hitzak eta askotariko estiloak** bere bakarkako azken lanerako.



etorriko dira berriak

JULIANA ZUBIZARRETA (1909-2006)

Juliana Zubizarreta pandero-jotzailea 97 urterekin zendu da. Erromeriaz erromeria ibili zen 16 urte zituenetik. Bere **grazia eta alaitasuna**

lagun, garaiko trikitilari handi guztien pandero-jotzaile izan zen. Besteak beste, Kataolatza, Madariagako Gregorio, Laja, Sakabi, Mendaroko Ospas (Bitoriano), Gelatxo eta beste hainbatekin jardun zuen Armaitxa-Beheko baserrian jaio eta Aldapa baserrian bizi izan zen pandero-jotzaileak.

Lehen pandero-jotzaileak emakumeak izan ziren, eta garai hartako azken emakume pandero-jotzailea joan zaigu, hortaz. Emakume alaiak izan ziren, eta berezko alaitasuna eta grazi puntua pare-parean zetozkion panderoaren izaerari. Goian bego, beraz, Juliana Zubizarreta.



Izer eta Juliana, Lajan, 2003ko abenduan.

JUAN GARATE MALTZETA (1924-2006)

1924an jaio zen Urrategi Bailarako (Azkoitia) Maltzeta-Etxetxo baserrian. **Gerra ondoko trikitilari belaunaldikoa** bera. 16 urterekin ekin zion trikitixa jotzeari, eta Zialtzeta, Juanito eta Eleuterio Tapia, eta Sakabirekin bazter askotan ibili zen. Irakasle Joxe Mari Aranberri, Elgeta eta Kandido Beristain izan zituen. Pandero-lagun, berriz, Mamen alaba, Landakanda eta Zabale. Txapelketetan ere ibili zen Maltzeta. 1974an, Landakandarekin batera, Trinitate Plazan. 1980an, berriz, alabarekin parte hartu zuen Euskadiko Trikitixa Txapelketan.

Bere hainbat grabazio baditugu esku artean. Garai batekoak, 1965-1970 urte artekoak, Arrate eta Loiolako irratiaren grabatutakoak. Geroztik, hainbat diskotan parte hartu zuen, eta bere diskografian 3 lan biltzen dira. Aita-alabek grabatutakoak hirurak, eta azkena 2001ean kaleratutakoa, **Negarrez abesten dut** izenekoa.



Landakanda eta Maltzeta

VICTOR BILBAO LARRINAGA (1925-2006)

Victor Bilbao Larrinaga, Martzelino Larrinagaren hiloba, 81 urterekin zendu da. Martzelino osabaren biderei jarraitu zion, eta soinuak konpontzeari ekin zion osabaren tailerlean. Martzelino osabak musikarekiko zaletasuna bazuen, eta bere soinu inork ez bezala zaintzen zuen. Pixkanaka-pixkanaka, Martzelinoren bertute haren jakinaren gainean jarri ziren soinu-jotzaileak ere eta beregana jotzen zuten soinuarekin arazorik izanez gero. Osabak Donostiako Egia kaleko 14. zenbakian ireki zuen Larrinaga hasieran, eta gerora **Larrinaga Gerrini** soinu-tailerra. Victor hantxe aritu zen lanean, jubilatua bitarte. Soinu-jotzaile guztiek bazekiten nora jo, soinuak egin eta konpontzeko oso estimatua izan baitzen lantegi hau, sona handikoa. Goian bego Victor Bilbao Larrinaga.